



## FUNDAZIOAK: OHIKO GALDERAK

### 1. Nafarroako Zuzenbidearen arabera, zer dira Nafarroako fundazioak?

Nafarroako Zuzenbidearen arabera, Nafarroako fundazioak irabazteko asmorik gabeko pertsona juridikoak dira, ondarea interes orokorreko xedeak betetzera lotuta dutenak, eta jarduerak batez ere Nafarroan egiten dituztenak.

### 2. Notariotzara joan behar da Nafarroako fundazioa eratzeko?

Bai; izan ere, fundazio bat eratzeko, ezinbestekoa da eraketa eskritura publiko batean egilestea, oinordetzen foru zuzenbide zibileko kasu bakan batzuetan izan ezik.

### 3. Zenbat ordaindu behar da Nafarroako fundazio bat eratzegatik eta erregistratzegatik?

Fundazioaren sortzaileek zuzkidura modura ekarri behar dituzten kopuruez gainera honako hauek ere ordaindu behar dira:

- inskripzioaren legezko tasa: gaur egun, 53 euro.
- notariotzako gastuak, eskritura publikoak eragiten dituenak.

### 4. Nork eraten ahal du fundazioa?

Zeinahi pertsona fisikok zein juridikok eraten ahal du fundazioa, bere kabuz zein beste batzuekin batera. Fundazioa sortzen duten pertsonak horretarako behar den gaitasuna eduki behar dute; hona:

- pertsona fisikoek gaitasuna eduki behar dute zuzkidurako ondasunak eta eskubideak doan baliatzeko.
- pertsona juridiko pribatuek organo eskudunaren berariazko erabakia behar dute beren ondasunak doan baliatzeko, aplikatzen zaien legeriarekin edo beren arauekin bat.
- pertsona juridiko publiko beren araudia bete behar dute.

### 5. Zer agertu behar da fundazioaren eraketaren eskritura publikoan?

Fundazio baten eraketaren eskrituran honako hauek agertu behar dira gutxienez:

- fundazioa sortu duten pertsonen datuak.
- fundazioa sortzeko borondatearen adierazpena, sortzaileek egina.
- entitate berriaren izena.
- hasierako zuzkidura.
- patronatuko kideak.
- estatutuak.



## 6. Zer dira fundazioaren estatutuak?

Fundazioaren sortzaileek hura antolatzeko eta haren jardunerako prestatutako araua. Eraketan ematen da.

## 7. Zein da Nafarroako fundazioen arloko indarreko foru legeria nagusia?

Nafarroako fundazioak arautzen dituzten foru arau nagusiak Foru Berriko 42. legean oinarritzen dira; honako hauek dira: 13/2021 Foru Legea, ekainaren 30ekoa, Nafarroako fundazioei buruzkoa; 104/2022 Foru Dekretua, azaroaren 30ekoa, Nafarroako Fundazioen Erregistroa eta haren eskumeneko prozedurak arautzen dituena.

Fundazioa zergen arloko foru araubide berezian egonez gero, honako hau ere aplikatzen zaio: 10/1996 Foru Legea, uztailaren 2koa, fundazioen eta babeste jardueren tributu araubidea erregulatzen duena.

## 8. Estatutuetan ezartzen ez bada ere, foru legeria nahitaez bete behar da?

Bai, foru legerian bertan berariaz besterik ezartzen duen kasuetan izan ezik, baldin eta foru legerian horretan ezartzen diren baldintzak betetzen badira.

## 9. Fundazioaren sortzaileek gehitzen ahal diete beste xedapenik edo baldintzarik nahitaezkoiei?

Bai, baina zilegi izan behar dira; izan ere, foru legeriaren kontrakoak direnak ez dira ezarritzat joko, eta, gainera, baten batek fundazioaren eraketaren baliozkotasuna eragozten badu, erregistroko inskripzioa ukatuko zaio, eta ondorioz ez du edukiko nortasun juridikorik edukiko fundazio gisa eta izenean ezin erabili izanen ditu "Fundación" eta "Fundazio" hitzak.

## 10. Foru legeriaren arabera, zer agertu behar da Nafarroako fundazioen estatutuetan?

Fundazioaren estatutuetan gutxienez honako datu hauek agertu behar dira nahitaez:

- izena.
- egoitza.
- jarduerak egiten dituen lurralde-eremua.
- fundazioaren iraunaldia edo, bestela, mugagabea dela.
- fundazioaren helburuak.
- helburuak betetzeko jarduera nagusiak.
- dauzkan baliabideak bere helburuetarako aplikatzeko oinarritzko arauak.
- patronatuaren antolamendurako eta jardunerako funtsezko arauak: patronatuaren osaera; patronatuko kideak eta karguak izendatzeko, hutsik gertatzen direnak betetzeko eta aldi batez ordeztzeko arauak; agintaldien iraunaldia; kidetza edo kargua uzteko arrazoiak; eskudantziak; eztabaidatzeko eta erabakiak hartzeko moduak.
- egonez gero, patronatuaz gainerako beste organo batzuei buruzko arauak (ahalmenak eta egitekoak barne).



- soberako ondarearen xedea, fundazioa azkenduko balitz ere.
- patronatuko kideak izendatzeko arauak, inoiz kide guztiak faltako balira ere.
- onuradunak nortzuk diren zehazteko oinarrizko arauak.

### 11. Nor dira Nafarroako fundazioen “hartaileak” eta “onuradunak”?

- Hartaileak dira fundazioaren jardueren xede diren pertsonen kolektibitate orokor eta zehaztugabeak.
- Onuradunak dira patronatuak inpartzialtasunarekin, diskriminaziorik gabe eta objektibotasunarekin fundazioaren jarduera eta onura zehatzak jasotzeko hautatzen dituen pertsonak edo pertsona-taldeak.

### 12. Nola hautatzen dituzte fundazioek beren onuradunak?

Fundazioaren prestazioen onuradunak izan daitezke patronatuaren iritziz horiek jasotzea merezi duten pertsona fisiko eta juridiko guztiak. Patronatuak inpartzialtasunaren irizpideari eta inor ez diskriminatzeke irizpideari jarraikiz hautatuko ditu onuradunak honako hauen artean:

- fundazioaren arreta jasotzen duen populazioaren sektoreko herritarrak.
- fundazioak eskaintzen ahal duen prestazioa edo zerbitzua eskatzen dutenak.
- merezimenduen, gaitasunaren, premiaren edo onuraren arabera hautatzen direnak.
- berariaz ezartzen diren beste baldintza batzuk betetzen dituztenak.

### 13. Fundazioek kobratzen ahal dute dirua egiten dituzten zerbitzuengatik?

Bai, fundazioek onuradunei ematen dizkieten zerbitzuak ordainpekoak izaten ahalko dira, baldin eta eskuratzen duten dirua bere helburuetara bideratzen badute eta justifikaziorik gabe mugatzen ez badute hartaile izan daitezkeen esparrua.

### 14. Fundazioei eskatzen ahal zaie zerbitzuak egiteko?

Ez; izan ere, inork ezin dio heldu, ez bakarka, ez taldean, fundazio baten onura jasotzeko eskubideari hura eman aurretik, ez eta onura hori pertsona edo talde jakin batzuei dagokiela agindu ere.

### 15. Fundazio berriei zeinahi izen jartzen ahal zaie?

Bai, honako arau hauek betez gero:

- “Fundación” edo/eta “Fundazioa” hitza agertu behar da;
- ezin da izan beste erregistro publiko batean (fundazio-erregistroa zein bestelakoa) erregistratuta dagoen beste fundazio baten izen bera, ez eta nahasketa eragiteko modu antza eduki ere;
- izenean ezin da egon legeen kontrako hitzik ez adierazpiderik, ez eta pertsonen oinarrizko eskubideak urratzen dituenik ere;



- ezin da eratu Espainia izen hutsarekin, ez autonomia erkidego baten izenarekin, ez toki entitate baten izenarekin, eta ezin dira erabili erakunde ofizial edo publikoen izenak, Espainiakoak nahiz nazioartekoak izan, non ez den entitate fundatzailearen izen bera;
- ezin da erabili sortzailea ez den pertsona fisiko baten izena ez izenordea, ez pertsona juridiko baten izena ez akronimoa, hark edo beraren legezko ordezkariak berariar emandako baimena eduki ezean;
- izenean ezin da aipatu fundazioaren helburuekin bat ez datorren jarduerarik, ez eta fundazioaren izaeraren edo jardunaren inguruan nahasmena edo okerreko ideia sortzen ahal duenik ere;
- ez dira onartuko entitate publikoek eta pribatuek beren lege berariazkoen bidez babestuta edo erreserbatuta dituzten izenak.

#### **16. Zertarako sortzen ahal dira fundazioak?**

Fundazioek interes orokorreko xede bat edo batzuk eduki behar dituzte; beren jarduerak pertsona-talde generiko eta zehaztugabeentzat izan behar dira.

#### **17. Foru legeriaren arabera, zein dira interes orokorreko xedeak?**

Foru legeriaren ezartzen denari jarraikiz, Nafarroako fundazioak interes orokorreko honako xede hauek lortzeko sortzen ahal dira, adibidez:

- giza eskubideak, bortxazko egintzen biktimak eta beste hondamendi batzuen biktimak defendatzea.
- printzipio demokratikoak eta zibikoak defendatzea.
- hezkuntza, zientzia eta ikerketaren arloetako xedeak.
- osasunaren eta kirolaren arloetako xedeak, eta bizi-ohitura osasuntsuak sustatzea.
- kultura sustatzea eta hedatzea, kultur ondarea defendatzea eta hizkuntzen aberastasuna eta dibertsitatea bultzatzea.
- ingurumena eta garapenerako eredu jasangarria defendatzea.
- ekonomia eta ekintza soziala sustatzea.
- garapenerako lankidetzeta eta boluntariora soziala sustatzea.
- emakumeek eta gizonek aukera berak edukitzea.
- herritar guztien irisgarritasuna bultzatzea eta pertsonen erabateko integrazioa eta haien arteko berdintasuna eragozten dituzten oztopoak ezabatzea.
- garapen teknologikoa eta informazioaren gizartea.
- herritar guztiek enplegua edukitzea eta lan-arloan denek aukera berak edukitzea sustatzea.



## **18. Fundazioek edukitzen ahal dituzte foru legerian ezartzen diren interes orokorreko xedeak ez beste batzuk?**

Bai. Araudiko zerrendan adibideak baino ez dira ematen; sortzaileek interes orokorreko antzeko beste xede batzuk ezartzen ahal dituzte estatutuetan.

## **19. Zer da hasierako zuzkidura?**

Fundazioa sortzen duten pertsonak hura eratzean haren ondarean sartzen dituzten ondasunak eta eskubideak. Ondasun eta eskubide horiek fundazioaren helburuak lortzearekin zuzenean lotuta geratzen dira.

## **20. Hasierako zuzkidura diruzkoa izan behar da nahitaez?**

Ez, zuzkidura diruzkoa izan daiteke, baina bestelakoa ere bai: higiezinak, koadroak, sozietate-akzioak, bitxiak etab.

## **21. Fundazioa eratzeko, nahitaez jarri behar da hasierako zuzkidura?**

Bai, beti. Gainera, jarri dela egiaztatu behar da eraketa egilesten duen notarioaren aurrean:

- dirua bada, fundazioa eman zaiolako ziurtagiria aurkeztu behar da, bankuak egina.
- bestelakoa bada, zuzkidura bermatzen duen agiria aurkeztu behar da: ondasunen erregistro-datuak edo akzioen edo partaidetzen zenbakiak.

## **22. Fundazioa eratzean nahitaez ordaindu behar da hasierako zuzkidura osoa?**

Zuzkidura diruzkoa bada, hasieran gutxienez guztirako zenbatekoaren % 25 ordaintzen ahal da eta gainerakoa bost urte iragan baino lehen, eraketaren eskritura publikoa egilesten denetik zenbatuta.

## **23. Zenbatekoa izan behar da gutxienez Nafarroako fundazioa inskribatzeko prozesuan jarri beharreko zuzkidura?**

Ez da ezartzen zenbatekoa izan behar den gutxienez hasierako zuzkidura. Hala ere, honako bi baldintza hauek ezartzen dira:

- zuzkidura fundazioaren helburuak lortzeko egokia eta behar den bestekoa izan behar da, eta
- ezeztazina eta itzulezina izan behar da.

## **24. Nola frogatzen ahal da hasierako zuzkidura egokia eta behar bestekoa dela?**

Bi agiri aurkeztu behar dira erregistroan:

- Lehen jarduketa-programa; iraunaldia urtebetekoa izan behar da inskripzioaren eskaera aurkeztzen den egunetik aurrera eta bertan zehatz-mehatz azaldu behar da zer ekintza egingen diren fundazioaren xedeak lortzeko edo/eta fundazioa abian jartzeko behar diren helburuak erdiesteko.



- Azterlan ekonomikoa, fundazioaren bideragarritasunari buruzkoa; bertan jarduketa-programako jarduera guztien finantzabide guztiak zehaztu behar dira, ongi xehatuta eta identifikatuta.

## 25. Lehen jarduketa-programa nahitaez aurkeztu behar da beti?

Bai, beti.

## 26. Azterlan ekonomikoa nahitaez aurkeztu behar da kasu guztietan?

Ez, zuzkidura 10.000 eurokoa edo txikiagoa denean baino ez da aurkeztu behar.

## 27. Fundazioa inskribatu ondoren gehitzen ahal da hasierako zuzkidura?

Bai, fundazioa ari den bitartean hasierako zuzkidura gehitzen ahal da diru-ekarpenak eginez edo ondareko erreserbak edo/eta soberakinak eraldatuz, norberaren borondatez zein legeriak behartuta. Halaber, hasierako zuzkidura fundazioaren sortzaileek edo hirugarrenek ondarerako ondasunak edo eskubideak ekarri ere gehitzen ahalko da, bai eta patronatuak halako ondasunak edo eskubideak fundazioaren helburuei behin betiko atxikitzea erabakiz gero ere.

## 28. Zer gertatu behar da Nafarroako fundazioek nortasun juridikoa bereganatzeko?

Nafarroako fundazioek nortasun juridikoa edukitzeko, ezinbestekoa da eratu ondoren Nafarroako Fundazioen Erregistroan erregistratzea.

## 29. Zer egiten ahal dute fundazioek eratzen direnetik inskribatu bitarteko aldian?

Erregistroan inskribatzeko egin behar diren egintzez gainera patronatuek honako hauek soilik egiten ahalko dituzte: fundazioaren ondarea babesteko behar-beharrezkoak diren egintzak eta, fundazioarentzat kaltegarria izanen litzatekeela-eta, atzeratu ezin direnak.

## 30. Zer gertatzen da fundazio bat eratu ondoren inskribatzen ez bada?

Inskripzioa ez badute eskatzen horretara behartutako pertsonak, edo prozeduraren ondorioz zuzenketa egiteko eskaerei erantzuten ez badiete, modu solidarioan hartuko dituzte beren gain egin beharrekoa ez egiteagatik eta fundazioa inskribatzeko prozesuan egindakoarengatik sortzen diren erantzukizunak.

## 31. Zer da patronatua?

Patronatua fundazioaren gobernuko, administrazioiko eta ordezkarietako organoa da.

## 32. Zein dira patronatuaren egiteko nagusiak?

Patronatuaren egiteko nagusiak dira: fundazioaren xedek betetzea eta betearaztea eta fundazioaren ondareko ondasunak eta eskubideak administratzea, horien errendimendua eta erabilgarritasuna osorik mantentzea, eta hori guztia kudeaketa onaren irizpide ekonomikoak eta finantzarioak aplikatuz egitea.

## 33. Nafarroako fundazio guztiek eduki behar dute patronatua?

Bai, fundazioek nahitaez eduki beharreko organoa da.



### 34. Zenbat pertsona egon behar dira patronatu batean gutxienez?

Patronatu guztietan HIRU pertsona egon behar dira gutxienez.

### 35. Nortzuk dira patronatuko kideak?

Patronatuaren osaera fundazioaren estatutuetan finkatu behar da:

- kideen kopurua (gehienez eta gutxienez zenbat izan behar diren ezartzen ahal da; esaterako “*bi kide gutxienez eta bost gehienez*”.
- karguak: lehendakaria, lehendakariordea, idazkaria, diruzaina eta abar.

### 36. Hautatzen ahal dira behin eta berriro patronatuko kide berak?

Patronatuko kideen eta haren karguetan ari direnen iraunaldia mugagabea edo aldi baterakoa izan daiteke. Aldi baterako badira, kide eta kargudun berak hautatzen ahalko dira behin eta berriro, fundazioaren estatutuetan besterik ezarri ezean.

### 37. Zer gertatzen da noizbait ezin badira izendatu hiru patronatuko kide, gutxieneko kopurua hain zuzen ere?

Ari diren patronatuko kideek falta direnak izendatu behar dituzte 6 hilabete iragan baino lehen, eta, lortzen ez badute, fundazioa azkentzea edo patronatuaren osaera aldatzea sustatu beharko dute.

### 38. Zer gertatzen da fundazioa patronatuko kiderik gabe geratzen bada?

Estatutuetan ezarrita egon behar da zer egin behar den patronatuko kideak izendatzeko.

### 39. Zer baldintza bete behar dira patronatuko kidea izateko?

Pertsona fisikoak zein juridikoak izan ahalko dira patronatuko kideak:

- pertsona fisikoek jarduteko gaitasun osoa eduki behar dute eta, horrez gain, ezin dira egon desgaituta kargu publikoetan aritzeko eta ezin dira egon bateraezintasun-kasu batean.
- pertsona juridikoek beren ordezkariak izanen diren pertsona fisikoak izendatu beharko dituzte.

### 40. Patronatuko kideak beren egitekoetan jarduten hasten ahal dira izendatu eta berehala?

Ez; horretarako, izendapena estatutuetan arabera egin behar da eta, gainera, izendatuak berariaz onartu behar du izendapena.

### 41. Nola onartzen da patronatu bateko kidea izatea edo nola egiten zaio uko horri?

Zenbait modu daude baterako zein besterako:

- agiri publikoa; benetako kopia aurkeztuta egiaztatuko da.
- agiri pribatua, notarioak egiletsitako sinadurarekin; lekukotzaren bidez egiaztatuko da.



- patronatuaren aurrean (idazkariaren ziurtagirian bidez egiaztatuta), norbera erregistrora joanda edo modu sinesgarrian jasota geratzen den beste modu baten bidez (burofaxes, notario bidez, kontsulatuako legeztatpena, etab.).

#### **42. Nafarroako fundazioen patronatuetako kideek kobratzen ahal dute beren egitekoetan aritzeagatik edo jasotzen ahal dute kontraprestaziorik edo mozkinik?**

Ez. Patronatuko kideek doan jardun behar dute beren egitekoetan; beraz, ezin dute ezer kobratu haietan aritzeagatik eta ezin dute partaidetzarik eduki fundazioaren emaitza ekonomikoetan, ez berek zuzenean, ez tarteko pertsona edo entitate baten bidez. Gainera, ezin dute baliatu patronatuko kidea izatea onura pertsonalak edo materialak lortzeko.

Berriz, fundazioari eskatzen ahal diote ordaintzeko egitekoek eragiten dizkieten gastuak, behar bezala frogatuz gero, baina hala jasotzen dituzten diru-kopuruak ezin dira izan PFEZaren arautegian kargatik salbuetsitako dietetarako ezarritako gehieneko zenbatekoa baino gehiago.

#### **43. Fundazioak kontratatzen ahal ditu kostu bidez bere patronatuko kideak?**

Ez, inola ere ez; bateraezinak dira patronatu bateko kidea izatea eta hari ordainpeko zerbitzuak egitea.

#### **44. Nola jardun behar dute patronatuko kideek beren egitekoetan?**

Patronatuko kideek:

- beren egitekoetan arduraz jardun behar dute, ordezkari leialen arretarekin, eta beren jardunean indarreko lege-xedapenak eta fundazioaren estatutuak bete behar dituzte.
- fundazioari buruzko informazio konfidentzialak isilpean gorde behar dituzte, are kargua utzi ondoren ere.

#### **45. Zein dira patronatuko kideen erantzukizunak**

Patronatuko kideak arautegiaren edo estatutuen aurkako ekintzen ondorioz edo behar den arretarik gabe egindako ekintzen ondorioz sortzen diren kalteen edo galeren erantzule solidarioak izanen dira fundazioaren aurrean.

#### **46. Zer kasutan geratzen ahal dira patronatuko kideak erantzukizunetatik salbuetsita?**

Ez dute erantzukizunik edukiko erabakiaren aurka bozkatu dutenek, ez eta honako hau frogatzen dutenek ere: ez dutela parte hartu erabakia hartzean ez betetzean, ez dutela eduki erabakiaren berri edo, haren berri edukita, kaltea saihesteko behar zen guztia egin dutela edo, gutxienez, berriaz egin dutela haren aurka.

#### **47. Zer kargu egon behar dira nahitaez patronatuetan?**

Patronatuetan lehendakaria eta idazkaria egon behar dira nahitaez.

#### **48. Fundazioen estatutuetan ezartzen ahal da idazkariak ez daukala zertan izan patronatuko kidea?**





Bai, baina hala bada, badauka hizpidea, baina botorik ez.

#### **49. Horiez gainera egon daiteke beste kargurik patronatuetan?**

Nahitaezko karguak ez ezik (lehendakaria eta idazkaria), fundazioaren sortzaileek beste kargu batzuk ere ezartzen ahal dituzte estatutuetan: lehendakariordea, diruzaina eta beste batzuk. Hala gertatzen denean, kargu bakoitzaren egitekoak arautu beharko dituzte; egiteko horiek Fundazioen Foru Legean ezartzen direnak izanen dira gutxienez.

Patronatuko gainerako pertsonak kideak izanen dira.

#### **50. Kargua nahitaez onartu behar da?**

Patronatuko kidea izateko izendapena ez ezik, izendapenean agertzen den kargua ere berriaz onartu beharko da.

#### **51. Estatutuetan nahi den bezala ezartzen ahal dira patronatuko kargu bakoitzeko egitekoak?**

Bai, honako hauek izan ezik:

- foru legerian lehendakariaren eta idazkariaren karguetarako berriaz ezartzen diren egitekoak.
- foru legerian lehendakariordearen eta diruzainaren karguetarako berriaz ezartzen diren egitekoak, karguok estatutuetan agertzen badira.

#### **52. Zein dira fundazioaren lehendakariaren egitekoak?**

Kargu hau fundazioaren estatutuetan agertu behar da. Titularrak honako egiteko hauek edukiko ditu:

- fundazioaren legezko ordezkarietan, ordezkarietza judizialean eta judizioz kanpokoan aritzea.
- patronatuko bileretarako deiak egitea, aztergaien zerrendak finkatzea, eztabaidak moderatzea eta bilerak amaitutzat ematea.
- patronatuaren erabakiak betearaztea.
- estatutuak eta indarreko araudia betearaztea.
- araudian edo estatutuetan esleitua dauzkan gainerako ahalmen guztiak erabiltzea, eta berriaz eskuordetzen zaizkion egiteko guztiak.

#### **53. Zein dira fundazioaren idazkariaren egitekoak?**

Kargu hau fundazioaren estatutuetan agertu behar da. Titularrak honako egiteko hauek edukiko ditu:

- patronatuaren bileretarako deiak egitea, lehendakariak aginduta, eta organoko kideentzako zitazioak egitea.



- bileretan izatea eta aktak egitea; aktetan honako datu hauek adierazi behar ditu: bileran izan diren kideak (bertaratu direnak zein ordezkaturak daudenak), bileraren aztergaien zerrenda, noiz eta non egin den, eztabaiden puntu nagusiak (patronatuko kideek eskatzen badute) eta hartutako erabakien edukiak.
- fundazioaren dokumentazio guztia zaintzea.
- ziurtagiriak ematea, lehendakariak edo haren ordezkoak ontzat emanik, eta behar diren txostenak egitea.
- diruzaintzako egitekoak bere gain hartzea patronatuan diruzain kargurik ez badago.
- araudian edo estatutuetan esleitua dauzkan beste ahalmen guztiak erabiltzea, bai eta berariaz eskuordetzen zaizkionak ere, patronatuko kidea izanez gero.

#### **54. Zein dira fundazioaren lehendakariordearen egitekoak?**

Lehendakariaren kargua estatutuetan ezartzen bada, horretan ari den patronatuko kideak lehendakariaren ordezko lanak egiten ditu kargu hori hutsik dagoenean, lehendakaria kanpoan edo eri dagoenean edo bateraezintasuna duenean (lehendakariorde bat baino gehiago izendatu bada, izendapenaren hurrenkeran egiten dituzte lehendakari-lanak).

#### **55. Zein dira fundazioaren diruzainaren egitekoak?**

Diruzainaren kargua fundazioaren estatutuetan ezartzen bada, diruzainak honako egiteko hauek edukiko ditu:

- fundazioaren funtsak zaintzea eta kontabilitateaz arduratzea.
- lehendakariarekin batera, funtsen erabilera baimentzea.
- inbentarioa, egoeraren balantzea, emaitzen kontua eta memoria ekonomikoa prestatzea.
- araudian edo estatutuetan esleitua dauzkan gainerako ahalmen guztiak erabiltzea, eta berariaz eskuordetzen zaizkion egiteko guztiak.

#### **56. Zer kasutan uzten dute kargua patronatuko kideek?**

Patronatuko kideek kasu hauetan utziko dute kargua:

- hilez gero edo heriotza-deklarazioa eginez gero.
- patronatuko kidea pertsona juridikoa bada, azkenduz gero.
- ezintasuna, desgaiakuntza edo bateraezintasuna gertatuz gero.
- izendapena eragin duen kargua utziz gero.
- arretarekin jarduten ez badu, patronatuak adierazita entzunaldia eman ondoren.
- epailearen erabakiz.
- agintaldia amaituz gero, mugaeguna ezarrita badauka.



- uko eginez gero.
- estatutuetan kargua uzteko ezarritako baliozko arrazoi bat gertatuz gero.

### **57. Nola osatzen da patronatua kideren batek kargua utziz gero?**

Kideek kargua uzteagatik gertatzen diren hutsak estatutuetan ezartzen den bezala beteko dira.

### **58. Zer gertatzen da patronatuko kide bat aldi batez ez dagoenean?**

Patronatuko kide bat aldi batez ez dagoenean, dena delako eragozpenarengatik edo gaixotasunarengatik, ordezkoa izendatuko da estatutuetan ezartzen den bezala.

### **59. Zein dira patronatuen eskumenak?**

Patronatuak fundazioaren xedeak bete eta betearazi behar ditu, eta fundazioaren ondareko ondasunak eta eskubideak administratu behar ditu, horien errendimendua eta erabilgarritasuna osorik mantenduz. Horretarako, honela jardun behar du:

- kudeaketa onerako irizpide ekonomiko eta finantzarioen arabera, eta
- indarreko arautegian xedatzen denarekin eta fundazioa sortu duten pertsonen eraketa-egintzan eta estatutuetan adierazitako borondatearekin bat etorritz.

### **60. Foru legeriaren arabera, zer eskudantzia daukate patronatuko kide guztiek?**

Patronatuaren ahalmenen esparrukoak dira fundazioaren gobernuari, ordezkariari eta administrazioari dagozkien afera guztiak, kontrakorik ezarrita egon ezean, ahalmen horietako bat sortzaileentzat gorde delako. Eskumen hauek daukate

- fundazioaren lanaren goi-zuzendaritza, ikuskapena, zainketa eta orientazioa.
- estatutuak aldatzea erabakitzea eta haiek interpretatzea.
- fundazioaren izena erabakitzea.
- fundazioa azkentzea erabakitzea, horretarako arrazoi bat dagoenean.
- fundazioaren jardunerako lehentasunak ezartzea eta baliagarri dauden funtsak banatzeko eta aplikatzeko ildo orokorrak finkatzea.
- hurrengo ekitaldiko diru-sarreraren eta gastuen aurrekontua onestea.
- inbentarioa eta urteko kontuak onestea, memoria ekonomikoa eta ekitaldiko diru-sarreraren eta gastuen aurrekontuaren likidazioa barne.
- objektibotasunez hautatzea fundazioaren prestazioen onuradun izanen diren pertsonak.
- prestazioak eta lankidetzak hitzartzea pertsona eta entitate publiko zein pribatuekin.
- jaraunspenak, legatuak edo dohaintzak onartzea edo arbuiatzea, fundazioarentzat komenigarria dela iritziz gero.



- kreditu-entitateekin mailegu-eragiketak edo kreditu-eragiketak edo beste finantza-eragiketa batzuk formalizatzea erabakitzea.
- fundazioaren ondasun eta eskubide guztiak erabili, administratu, kontserbatu, zaindu eta defendatzeko eginkizun guztiak betetzea, oro har, epaiketetan zein horietatik kanpo.
- ordezkariak irekitzea eta ixtea erabakitzea.
- ahalmenak patronatuko beste kide batzuei eskuordetzea.
- ahaldun orokorrak nahiz bereziak izendatzea.
- behar denean, fundazioaren beste organoetan, estatutuetan ezartzen direnetan, ariko diren kideak izendatzea.
- baimena ematea babesletzari egiaztatzeko fundazio eskubidea behar bezala baliatzen dela eta entitatearen jardunbidea legezkoa dela, eta betetzea babesletzari komunikatu eta baimena eskatzeko betebeharrak, araudian edo estatutuetan ezartzen direnak.
- arautegiaren edo estatutuen arabera babesletzak baimendu behar dituen egintzak onestea.
- hurrengo ekitaldirako helburuen eta jardueren urteko jarduketa plana onestea.
- erabakitzea non sartu behar den fundazioaren xedeetarako erabiliko ez den kontabilitateko emaitzako dirua, zuzkiduran edo erresebetan.
- nahitaez edo/eta borondatez inskribatu beharreko egintzak erregistratzeko eskatzea.
- erabakitzea hasierako zuzkidura gehitzea ekarpena modu iraunkorrean fundazioaren helburuei atxikiz.
- fundazioaren administraziorako, gobernurako eta ordezkarietarako erabili behar dituen gainerako ahalmenak, indarreko araudiak eta estatutuek ematen dizkietenak.

#### **61. Patronatuaz gainera egon daiteke beste organorik fundazioetan?**

Bai, baina ezinbestekoa da organo horien osaera, ahalmenak eta jardunbidea estatutuetan arautzea; gainera, hiru mota haueko batekoak izan behar dira:

- Ordezkaritza-organok, hau da, patronatuak eskuordetzen dizkien ahalmenak erabiliko dituzten organok.
- Gerentzia, zuzendaritzako edo/eta lankidetzako organok, patronatuaren edo/eta ordezkari-organoen erabakiak beteko dituztenak.
- Aholkularitza-organok, hau da, patronatuari erabakiak hartzeko aholkuak emanen dizkietenak. Patronatuko kideak ezin dira izan organo horietako kideak.

#### **62. Nortzuk izan daitezke patronatua ez fundazioko beste organoetako kideak?**

- ordezkari-organotako kideak patronatuko kideak baizik ezin dira izan.



- gerentzia, zuzendaritzako eta lankidetzako organoetan ezin da aritu patronatuko kiderik, kargua doakoa izan ezean.
- aholkularitza-organoetan ezin dira aritu patronatuko kideak, inola ere ez.

### **63. Zer egintza ezin du eskuordetu patronatuak?**

Ezin du eskuordetu kontuen, aurrekontuaren eta jarduketa-planaren onespina, ez estatutuak aldatzea, ez fundazioaren bat-egitea, azkentzea eta likidazioa, ez eta babesletzaren baimena behar duten egintzak eta estatutuen arabera eskuordetu ezin diren egintzak ere.

### **64. Fundazioek ematen ahal dituzten ahalordeak?**

Bai, patronatuek ahalorde orokorrak eta bereziak eman eta ezeztatzen ahalko ditu, estatutuetan kontrakorik xedatu ezean. Nolanahi ere, ahalordeak erabiltzeko, ezinbestekoa izanen da patronatuaren berezko eskumenak errespetatzea, eta, gainera, estatutuetan horretaz ezartzen dena bete beharko da.

### **65. Zer dago fundazioen ondarean?**

Fundazioen ondarean balioespen ekonomikoa aplikatzen ahal zaien denetariko ondasunak, eskubideak eta obligazioak egon daitezke, bai hasierako zuzkidurakoak, bai fundazioak eratu ondoren eskuratzen dituenak, zuzkidurari atxiki zein ez.

### **66. Norena da fundazioen ondarea?**

Fundazioa da beraren ondareko ondasun eta eskubide guztien titularra. Ondasun eta eskubide horiek guztiak urteko inbentarioan agertu behar dira.

### **67. Fundazioek egiten ahal dituzte jarduera ekonomikoak?**

Orokorrean, fundazioaren ondarea bere helburuak betetzeko eta etekinak edo ondare-gehikuntzak lortzeko modurik egokienean inbertituko da. Beraz, fundazioek jarduera ekonomikoak egiten ahal dituzte, baldin eta horien helburua fundazioaren xedeekin loturik badago edo horien osagarria edo gehigarria bada.

### **68. Fundazioek edukitzen ahal dute merkataritza-sozietateen partaidetzarik?**

Fundazioek denetariko jarduera ekonomikoetan parte hartzen ahalko dute sozietateetan duten partaidetzen bidez, indarreko araudian ezartzen denarekin bat etorritik.

Aldiz, ez dute izaten ahalko zorren erantzukizun pertsonala dakarten merkataritza-sozietateen partaidetzarik. Halakorik edukiz gero, fundazioak berehala bihurtu beharko du partaidetza erantzukizun mugatuko formula batera.

### **69. Nafarroako fundazioek onartzen ahal dituzte jarauntsiak eta legatuak?**

Fundazioek jarauntsiak onartzen ahal dituzte, baina onarpena inbentario-onuraren arabera izan behar da. Patronatuko kideek onuraren galeraren erantzukizuna edukiko dute fundazioaren aurrean, bai eta jarauntsiko zordunei gehiegi ordainduz gero ere.

Gainera, karga duten legatuak edo kostu bidezko edo ordainsaripeko dohaintzak onartzen ahal dituzte, eta kargarik gabeko jarauntsiak, dohaintzak edo legatuak arbuizaten ahal dituzte, baina egintza horiek guztiak babesletzari jakinarazi beharko dizkiote.



## **70. Fundazioen Foru Legeak zer betebeharrak ezartzen du kontabilitatearen arloan?**

Fundazioek beren jardueraren araberako kontabilitatea eduki behar dute, irabazteko asmorik gabeko entitateak Kontabilitate Plan Orokorrari egokitzeko arauekin bat etorriz.

Fundazioek beren kide anitzeko organoen akten liburua, liburu egunkaria eta inbentarioen eta urteko kontuen liburu egunkaria eduki behar dituzte; liburu horien edukia eta egitura merkataritza legerian horretaz ezarritakoarekin bat etorri behar dira.

Urtero patronatuek ondasunen inbentarioa, egoeraren balantzea eta emaitzen kontua egiten dituzte (horietan argi azalduko dira fundazioaren egoera ekonomikoa, finantzen egoera eta ondarearen egoera), eta horiez gainera jardueren eta kudeaketaren memoria ekonomikoa ere egiten dute.

## **71. Diru-sarreraren eta gastuen emaitzatik zenbat erabili behar dute fundazioek beren xedeak betetzeko?**

Fundazioek beren kontabilitate-emaitzako zenbatekoaren % 70 gutxienez erabili behar dute beren xedeetarako. Kontabilitate-emaitza Fundazioen Foru Legean ezartzen diren doikuntzekin zuzendu behar da.

## **72. Urtero erabili behar da kontabilitate-emaitzaren % 70 fundazioaren xedeetarako, inolako salbuespenik gabe?**

Ez, fundazioek lau urteko epealdia edukiko dute errentak lortzen dituztenetik haien zenbatekoaren % 70 beren xedeetarako erabiltzeko; gainera, kontabilitate-emaitza zuzendua negatiboa bada, hurrengo urteetan xede horietarako erabili beharreko zenbatekotik kentzen ahalko da.

## **73. Zer gertatzen da kontabilitate-emaitzaren gainerakoarekin?**

Kontabilitate-emaitzatik fundazioaren xedeak betetzeko erabiltzen ez dena fundazioaren zuzkiduran edo erreserbetan sartuko da.

## **74. Nafarroako fundazioek beren jarduerak programatu behar dituzte?**

Bai, fundazioek aldi behin programatu behar dituzte beren xedeetarako jarduerak; horretarako, urtean behin prestazioen plangintza egiten dute eta horiek nola egin eta adjudikatu erabakiko dute. Hain zuzen ere, urtero patronatuek hurrengo ekitaldiko helburuak eta egiteko asmoa dagoen jarduerak zehazten dituen jarduketa-plana egin behar dute.

## **75. Zer da Nafarroako fundazioen babesletza?**

Nafarroako Foru Komunitatearen Administrazioa Nafarroako Fundazioen Erregistroan inskribatutako fundazioen babesletza izanen da.

Nafarroako fundazioei aholkuak eta laguntza teknikoa ematen dizkien erakundea da. Fundazioen kudeaketarako eta jardunerako autonomia errespetatzen dituela, fundazioak sortzeko eskubidea behar bezala baliatzea zaindu, erraztu eta sustatuko du, bai eta fundazio sortzaileen borondatea eta fundazioaren xedeak egiaz betetzea ere.

## **76. Nafarroako Fundazioen Erregistroan inskribatutako fundazio guztiak egon behar dira Nafarroako Foru Komunitatearen Administrazioaren babespean?**



Bai. Fundazio bakoitzaren babesletzan gaia dela-eta haren xede nagusiekin lotutako eskudantziak dauzkan Nafarroako Gobernu departamentua ariko da.

### 77. Zer agiri aurkeztu behar dizkiote nahitaez Nafarroako fundazioek babesletzari?

Patronatuek honako hauek egin eta babesletzari bidali beharko dizkiote:

- ekitaldi ekonomikoko lehen sei hiletan:
  - ondasunen inbentarioa;
  - egoera-balantzea;
  - emaitzen kontua (galera-irabaziena);
  - memoria, honako hauek zehazten dituen: fundazioaren jarduerak, kudeaketa ekonomikoa (finantzaketa-taula barne duela), fundazioaren helburuen betetze-maila, ondarean izan diren aldaketak eta gobernu, zuzendaritzako eta ordezkartzako organoetan izan diren aldaketak.
- ekitaldiko azken hiru hiletan, jarduketa-plana.
- urtero, kudeaketari buruzko txostena.
- egiten denetik hiru hilabete igaran baino lehen, kanpoko auditoretzaren txostena, egin behar bada.

### 78. Fundazioen foru legeriaren arabera, Nafarroako fundazioetatik zeintzuek egin behar dute auditoretza?

Honako fundazio hauek aplikatu behar diote kanpoko auditoretza beren urteko kontuei:

- ekitaldia ixten den egunean inguruabar hauetako bi gutxienez gertatzen diren fundazioek:
  - aktiboa guztira 1.803.000 eurotik gorakoa izatea.
  - urteko diru-sarreraren zenbateko garbia 3.606.000 eurotik gorakoa izatea.
  - ekitaldian enplegatutako langileen batez besteko kopurua 50 baino gehiago izatea.
- inguruabar bereziak direla-eta beharrezkoa dela iritzita, patronatuak auditoretza egitea erabakitzen duen fundazioek.

### 79. Zer da urteko kudeaketa txostena?

Patronatuak urtero egin eta babesletzari bidali behar dion agiria.

Urteko kudeaketa txostenaren edukia, formatua eta egitura norberak hautatzen ahal ditu, baina babesletzak fundazioak aztertzeke egitekoak behar bezala burutzeko modukoak izan behar dira.

### 80. Zein dira babesletzak Nafarroako fundazioak aztertzeke dauzkan egitekoak?



Nafarroako fundazioen babesletzak kontrolatu behar du:

- fundazioak sortzeko eskubidea zuzen erabiltzen den.
- fundazioen xedeak betetzen diren.
- fundazioek egiten dituzten jarduerak egokiak diren beren xedeetarako.
- pertsona onuradunak zehazteko prozesuan inpartzialtasunaren irizpidea eta inor ez diskriminatzeke irizpidea aplikatzen diren.
- zuzkidura fundazioaren xedeak betetzeko egokia eta nahikoa den.
- fundazioaren baliabide ekonomikoak beraren xedeetarako erabiltzen diren.

### **81. Noiz aurkeztu behar zaio urteko kudeaketa txostena babesletzari?**

Noiznahi urte naturalean zehar; nolnahi ere, hoberena litzateke ekitaldiko lehen seihilekoan aurkeztea, urteko kontuekin batera.

### **82. Zer kasutan eskatu eta lortu behar da babesletzaren baimena jarduketan egin aurretik?**

Baimen hori behar izateko honako hiru inguruabar hauek gertatu behar dira:

- estatutuetan ezarrita egotea
- bidezko arrazoia dagoela frogatzea, eta
- foru legeriaren arabera baimena behar duten egintzetako bat izatea.

### **83. Zer kasutan behar da baimena?**

Estatutuetan honako hauek erabiltzeko, besterentzeko (kostu bidez zein doan) edo kargatzeko egintza guztiak edo batzuk baino ezin dira aipatu:

- zuzkidurako ondasunak eta eskubideak; edo
- fundazioaren xedeak betetzearekin zuzenean lotutako ondasunak.

### **84. Nafarroako fundazioen jarduketetatik zeintzuk jakinarazi behar zaizkio nahitaez babesletzari?**

Honako egintza hauek baino ez:

- Karga duten legatuak edo kostu bidezko edo ordainsaripeko dohaintzak onartzeko egintzak eta kargarik gabeko jarauntsiak, dohaintzak edo legatuak arbuizatzeke egintzak. Jakinarazpena egintza egiten denetik hamar egun baliodun iragan baino lehen egin behar da.
- Zuzkidurakoak ez diren fundazioaren ondasunak eta eskubideak eta fundazioaren xedeak betetzearekin zuzenean lotuta ez daudenak erabiltzeko egintzak. Jakinarazpena egintza egiten denetik hogeita hamar egun baliodun iragan baino lehen egin behar da.





- Ondasun higiezinak, merkataritzako establezimenduak edo industria establezimenduak eta kultur intereseko ondasunak kargatzeko egintzak. Jakinarazpena egintza egiten denetik hogeita hamar egun baliodun iragan baino lehen egin behar da.
- Fundazioaren aktiboaren % 20tik gorako zenbatekoa duten egintzak, xedea gorabehera. Jakinarazpena egintza egiten denetik hogeita hamar egun baliodun iragan baino lehen egin behar da.

### 85. Aldatzen ahal dira fundazioen estatutuak?

Patronatuak estatutuak aldatzea erabakitzen ahal du, arrazoiturik, baldin eta fundazioaren sortzaileek ez badute hori debekatu, fundazioaren xedea errespetatzen bada, entitatearen interesetarako komenigarria bada eta helburuak hobeki lortzeko onuragarria bada.

### 86. Inoiz nahitaez aldatu behar dira estatutuak?

Patronatuak estatutuak aldatzea erabaki beharko du fundazioa sortzea eragin duten inguruabarrak aldatzen badira eta ondorioz hark ezin badu jardun behar bezala indarrean dauden estatutuen arabera. Salbuespena: estatutuetan ezarrita badago halakoetan fundazioa azkenduko dela

### 87. Fundazioek egiten ahal dute bat?

Bai, fundazioek bat egiten ahal dute beren xedeak hobeki betetzeko komeni dela uste izanez gero. Honela egiten ahal dute:

- fundazio batek beste bat edo batzuk irentsi, edo
- fundazio batzuek bat egin eta ondorioz beste bat sortu.

### 88. Zer egin behar da fundazioek bat egiteko?

Fundazioek bat eginen badute, aurretik patronatu guztiek horren aldeko erabakia hartu behar dute, fundazioen xedeak errespetatu behar dira, eta ezinbestekoa da sortzaileek estatutuetan bat egitea debekatuta ez egotea.

### 89. Fundazioak zatitzen ahal dira?

Bai, fundazioak zatitzen ahal dira ondarearen zati bat bereiziz honako xede hauetako baterako:

- beste fundazio bat sortzeko, edo
- lehendik dagoen beste fundazio bati eskualdatzeko.

### 90. Zer egin behar da fundazioa zatitzeko?

Fundazio bat zatituko bada, aurretik patronatu guztiek horren aldeko erabakia hartu behar dute, frogatu behar da zatitzen den fundazioaren xedeak hobeki betetzeko egiten dela zatiketa, eta ezinbestekoa da sortzaileek estatutuetan zatiketa debekatuta ez egotea.

### 91. Erabakitzen ahal du patronatuak fundazioa azkentzea?



Bai, baldin eta estatutuetan ezarrita badago fundazioa patronatuaren erabakiz azkenduko dela. Erabakian fundazioa azkentzeko arrazoiak azaldu behar dira.

## **92. Fundazioen foru legeriaren arabera, badago fundazioak azkentzeko beste arrazoirik?**

Bai, honako hauek daude:

- arrazoi automatikoak, hala nola bat egitea, iraunaldia amaitzea, xede guztiak betetzea eta xedeak ezin bete izatea.
- ebazpen judizialak, fundazioa azkentzeko agintzen dutenak, fundazioaren jarduerak edo helburuak zilegi ez direla deklaratzeko duten epai irmoak barne.
- fundazio-agirian, estatutuetan edo indarreko araudian ezarritako beste arrazoi batzuk.

## **93. Nolako da fundazioa likidatzeko prozedura?**

Fundazio bat azkentzen bada, likidazio-prozedura hasiko da, beharrezkoa izanez gero, eta bertan behar diren likidazio-eragiketak eginen dira: hasierako egoeraren balantzea onetsi, egiteko dauden eragiketak egin, kredituak kobratu eta zordunei ordaindu.

Likidazio-eragiketak eskritura publikoan formalizatuko dira; eskritura horretan onetsitako likidazio-balantzea agertuko da. Egiteko dauden eragiketak eta horiek egiteko modua ere zehaztuko dira.

## **94. Nork egiten ditu Nafarroako fundazioak likidatzeko eragiketak?**

Patronatua likidazio batzorde gisa eratzeko ahal da edo, bestela, batzordeko kideak izendatzen ahal ditu. Batzordeko kideak izendatu eta haiek kargua onartu ondoren patronatuak bere egiteko guztiak utziko ditu.

## **95. Zein dira likidazio batzordeko kideen eskubideak eta betebeharrak?**

Likidazio egintzei dagokienez, likidazio batzordeko kideek fundazioaren patronatuko kideen eskubide, betebeharrak eta erantzukizun berberak izanen dituzte.

## **96. Zer egin behar da azkentzen diren fundazioen soberako ondarearekin?**

Fundazio bat azkentzea erabakitzen denean, patronatuak likidazioaren emaitzako ondasunak eta eskubideak nola erabiliko diren ere erabakiko du, fundazioaren sortzaileek estatutuetan edo fundazio-agirian ezarritakoa aintzat hartuta. Nolanahi ere, gerakin hori azkentzen den fundazioaren interes orokorreko xedeen antzeko xedeak dauzkaten erakunde publikoentzat edo irabazteko asmorik gabeko entitate pribatuentzat izanen da.

## **97. Zer entitate inskribatu behar dira Nafarroako Fundazioen Erregistroan?**

- Jarduerak batez ere Nafarroan egiten dituzten fundazioak (beste lurralde-eremu batzuetan egiten ahal dituzte jarduerak).
- Foru Berriaren arabera eratutako fundazioak, baldin eta batez ere atzerrian ari badira eta patronatuaren egoitza Nafarroan badago.



- Foru Administrazio Publikoaren esparruan haren eskumeneko xedeetarako sortutako fundazio publikoak.
- Estatuko edo autonomia-erkidego baten araudiaren arabera eratutako fundazioak, gerora foru-araudira egokitzen direnak beren egoitza Nafarroako lurralde-eremuan ezartzeko eta jarduerak batez ere eremu horretan egiteko.
- Batez ere Nafarroan ari diren atzerriko fundazioen ordezkariak.
- Nafarroako fundazioek beste autonomia-erkidego batzuetan jarduteko eratutako ordezkariak.
- Indarrean dagoen araudiaren arabera hala behar duten entitateak.

### **98. Fundazioek zer egintza inskribatu behar dituzte nahitaez Nafarroako Fundazioen Erregistroan?**

Nahitaez inskribatu beharko dira fundazioen egintza hauek:

- Eraketa.
- Estatutuak foru araudira moldatzeko aldatzen dituzten estatuko edo autonomietako fundazioen lehen inskripzioa.
- Fundazio-agiriaren edo estatutuen edukiaren aldaketa.
- Patronatuaren berrikuntza.
- Bat egitea.
- Zatiketa.
- Azkentzea eta, behar denean, likidazioa.
- Nafarroan ari diren atzerriko fundazioen ordezkariak ezartzea, ordezkariak izendatzea, eta ahalordeak edo ahalmenak esleitzea, aldatzea eta ezeztatzea.
- Beste autonomia erkidego batzuetan ari diren ordezkariak eratzea.
- Patronatuak ahalordeak ematea, aldatzea eta ezeztatzea.

### **99. Nahitaez inskribatu beharrekoek gainera, inskribatzen ahal dira Nafarroako fundazioen beste egintza batzuk ere?**

Bai. Nafarroako Fundazioen Erregistroan fundazioaren jardunerako garrantzitsutzat jo eta patronatuek beren borondatez eskatzen duten egintza guztiak inskribatzen ahalko dira.

### **100. Horiez guztiez gainera, beste zer idazpen egiten da Nafarroako Fundazioen Erregistroan?**

Nahitaez inskribatu beharrekoek eta norberaren borondatez inskribatzen direnez gainera, Erregistroan honako hauen idazpenak ere egiten dira: epaitegiek eta auzitegiek inskribatutako fundazioei dagokienez jakinarazten dituzten ebazpen judizialak; beste erregistro batzuek



egindako inskripzioen komunikazioak, baldin eta ondorioak badituzte Foru Komunitatean ukitzen dituzten fundazioen jardunean; aurrekoen antzeko beste ebazpen publiko batzuk.

Halaber, honako hauen idazpenak ere egingen dira: zerga-araubide berezia eskuratzea eta galtzea; indarrean dauden izenen erabilera-erreserbak; zer departamentuk daukan babesletza; baimen-eskaeren ebazpenak.

### **101. Nafarroako fundazioen kontabilitateko zer agiri gordetzen da Erregistroan?**

Nafarroako Fundazioen Erregistroan bertan inskribatutako fundazioen urteko kontuak gordetzen dira.

### **102. Zer epealditan ebazten dira Erregistroan inskribatzeko eskaerak?**

Ebazpena jakinarazteko epealdia hiru hilabetekoa da eskaerari Foru Administrazio Publikoko erregistro batean sarrera ematen zaion egunetik aurrera.

### **103. Nafarroako Fundazioen Erregistroan inskribatzea doakoa da?**

Ez, Erregistroko inskripzioei inskribatzeko eskaera aurkezten denean indarren dagoen tasa eta prezio publikoen foru araudia aplikatzen zaie. Gaur egun, hauxe ordaindu behar da:

- eraketaren inskripzioarengatik 53 euro.
- estatutuen aldaketaren edo fundazioaren azkentzearen inskripzioarengatik 38 euro.
- gainerako inskripzioengatik 23 euro.

### **104. Nornahik aztertzen ahal du Nafarroako Fundazioen Erregistroa?**

Nafarroako Fundazioen Erregistroa publikoa da bertan bildutakoaren berri jakin nahi duten pertsona eta entitate guztientzat. Erregistro-publikotasuna honela betetzen da:

- normalean, ziurtagiriaren edo informazio-ohar soilaren bidez.
- aparteko kasuetan, idazpenen eta agirien zerrenden edo kopien bidez.

### **105. Nafarroan erregistro-publikotasuna doakoa da?**

Erregistro-publikotasunerako egintzei eskaera aurkezten denean indarrean dagoen tasa eta prezio publikoen foru araudia aplikatzen zaie. Gaur egun, hauxe ordaindu behar da:

- ziurtagiria egiteagatik 8 euro.
- Gordailatutako kontabilitate-agiri baten kopia bakoitzeko 9 euro.

### **106. Kontabilitateko zer agiri daude Nafarroako Fundazioen Erregistroaren gordailuan?**

Nafarroako Fundazioen Erregistroan bertan inskribatutako fundazioen urteko kontuak gordetzen dira. Urteko kontuetan lau agiri daude: inbentarioa, egoeraren balantzea, emaitzen kontua eta memoria ekonomikoa.

### **107. Nola eskatzen da erregistro-publikotasuna?**



Eskaeran eskatzaileak argi eta garbi zehaztu beharko da nolako ziurtagiria edo zer informazio eskuratu nahi duen, eta nor den eta egoitza non daukan adierazi behar du. Publikotasun-egintzak tasa bat ordaindu beharra eragiten badu, ordaindu delako egiaztagiria erantsi beharko zaio eskaerari, ordain-gutuna hain zuzen ere.

#### **108. Zenbat denbora behar izaten da ziurtagiria edo ohar soilak lortzeko?**

Eskaera aurkezten denetik hamar egun baliodun iragan baino lehen emanen dira.

#### **109. Erregistro-datuak doan aztertzen ahal dira Interneten?**

Bai. Nafarroako Fundazioen Erregistroak web-zerbitzua dauka, eta horren bidez doan aztertzen ahal dira inskribatutako fundazioen erregistro-datu nagusiak. Hona esteka

[https://administracionelectronica.navarra.es/REGASOC\\_WebAPI/index.html#/fundaciones](https://administracionelectronica.navarra.es/REGASOC_WebAPI/index.html#/fundaciones)

#### **110. Erregistro-datuak doan deskargatzen ahal dira Internetetik?**

Bai, Nafarroako Fundazioen Erregistroaren web-zerbitzuan sarturik, nornahik eskuratzen ahal ditu informazio-ohar soilak, eskaera aurkeztu gabe eta tasarik ordaindu gabe, Erregistroan alta emanda dauden fundazioen inskripzioei buruz eta erregistratutako azken patronatuko kideei buruz.

#### **111. Zertan dira desberdinak ziurtagiriak eta ohar soilak?**

Ziurtagirien bidez modu sinesgarrian egiaztatzen da gordailututako dokumentuen eta idazpenen edukia.

Erregistro-datuen ohar soilak informatiboak baizik ez dira; hala ere, pertsonak eta entitateek beren harreman juridikoetan balioa ematea hitzartzen edo adosten ahal dute.